



IKER
GAZTE
NAZIOARTEKO
IKERKETA EUSKARAZ

VI. IKERGAZTE

NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2025eko maiatzaren 28, 29 eta 30a
Bilbo, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)



Aitortu-PartekatuBerdin 4.0

GIZARTE ZIENTZIAK ETA ZUZENBIDEA

**Emozioen historia: etorkinen
esperientziak ulertzeko tresna
baliagarria. Migrazioak Espainiatik
Euskal Herrira (1960-2000)**

Eva Granados Sanz

51-58 or.

<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.vi.02.06>

ANTOLATZAILEA



BABESLEAK



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



LAGUNTZAILEAK



BERGARA

Emozioen historia: etorkinen esperientziak ulertzeko tresna baliagarria. Migrazioak Espainiatik Euskal Herrira (1960-2000).

Eva Granados Sanz.

Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Experiencia Moderna ikerketa taldea

eva.granados@ehu.eus

Laburpena

Artikulu honetan 1960ko hamarkadatik 2000. urtera arteko Euskal Herrian izandako migrazio espainiarra ulertzeko emozioen azterketa baliagarria dela defendatzen da.

Melankolia, lotsa eta ilusio utopikoa bezalako hiru emozioetatik abiatuta, aldi horretarako subjektu migratzailearen eraikuntza aztertuko da. Ahozko elkarrizketak eta emozioen analisi historikoa azterketa tresnak izango dira.

Hitz gakoak: Historia Garaikidea, migranteak, emozioen historia, melankolia, lotsa eta utopia.

Abstract

This article aims to argue that the study of emotions is a valid way to understand Spanish migrations in the Basque Country between the 1960s and 2000. Based on the example of three emotions: melancholy, shame and utopian illusion, the construction of the migrant subject in that period will be analysed. Oral interviews and analysis from the perspective of the history of emotions will be used as tools for the analysis.

Keywords: Contemporary History, Immigrants, History of Emotions, melancholy, shame and utopia.

1. Sarrera eta motibazioa

Migrazioen fenomenoak bai euskal historiografiak, bai soziologiak zabalki aztertu dute. Biak, 50. hamarkadan hasi zenetik orain arte, Espainia osotik (Aierdi, 1992: 182) Euskal Herriko hainbat gunetara eman zen populazio mugimendua kuantifikatzeaz eta ulertzeaz arduratu dira. Artikulu honek gure kasuan gutxiago landutako ikusmolde batetik etorkinen istorioetan barrentzea merezi duela defendatzen du: emozioen historia eta esperientzia.

Artikulu honek ahozko historiari egindako ikuspuntu bat proposatzen du. Honen bidez, bizitza-istorioak baliatuz, migrazioen alderdi ezezagunagoa bilduko da: migrazio eta helduera prozesuetan zirkulazioan egon ziren emozioak, bai eta emozio horiek eraiki zituzten subjektuak ere. Hain zuzen ere, gure analisia ahozko historiaren ikuspuntutik egiteko baliabideak honako hauek izango dira: Jon Maiaren bizi istorioa, egileak 2022ko apirilean Master Amaierako Lanaren testuinguruan egindako elkarrizketaren bidez, baita bertsolariaren “Extremaduratik Euskarara” komunikazioa ere. Horrez gain, beste hainbat egilek jasotako bizitza istorioak erabiliko dira, migranteen esperientziak helarazten dituztenak. Hauek izango dira: Luis Gonzaga Martínez del Campok (2023) Bilbora migratu zirenen emozio ikuspuntutik egindako ikerketa, Amaia Izaolak eta Imanol Zuberok Luis Castells Arteche koordinatu zuen libururako idatzi zuten Gipuzkoarako migrazioen inguruko analisia (2018), eta, David Beorleguiren ahozko historian oinarritutako doktoretzako ikerketa, “Transición y melancolía” (2017) izenarekin argitaratu zena.

Analisia gauzatzeko aukeraturiko emozioak melankolia, lotsa eta ilusio utopikoa dira. Kronologikoki ulertuak, emozio hauek etorkinen barne eta kanpoko ibilbidea azal dezakete: heltzearen melankolia, elkartzearen lotsa eta etorkizunarekiko ilusio utopikoa. Testigantzetan emozio hauek bilduz eta aztertuz, 1960ko hamarkadatik 2000. urtera etorkinaren subjektuaren eraketa ulertzen saiatuko gara.

2. Arloko egoera eta ikerketaren helburuak

2.1 Migranteak

Aurreko atalean aipatu den bezala, migrazio gaiari nabarmen ekin dioten lan ugari dago. Ordena kronologikoan, azpimarragarriak dira Amando de Miguel Rodriguez (1974), Manu Eskudero (1978), Xabier Aierdi (1993), Cristina Blanco eta Ignacio Ruiz Olabuénaga (1994) eta Pedro Chaconenak (2006), besteak beste. Aierdik migrazioak gizartean zuen egoera landu zuen. Integrazioaz gain, migratuek gizarte hartzaileari egindako ekarpenak ere aztertu zituen.

Aierdiren antzeko ildoan, Cristina Blancok eta Ignacio Ruiz Olabuénagak (1994) Euskal Herrira iristeko eta integrazteko migranteen prozesua ulertzeko ezinbestekoa den ikerketa egin zuten. Hiru belaunaldi aztertu zituen ikerketa horretan, argitaratu zenera arteko 150 urteko migrazio-prozesuak zehatz-mehatz aztertu zituen.

Iker Iraolaren (2011, 2013, 2017) lana ere ekarpen garrantzitsua izan da: diskurtso politikoak aztertu ditu, baita diskurtso horiek immigrazioaren inguruan nola jorratu diren ere. Iraolak bezala, Gaizka Fernández Soldevilla eta Raúl López Romo (2010, 2011) ere diskurtso nazionalistan zentratu dira migrazioaren fenomeno ikertzeko. Euren helburua migrazioak "gu" nazionalaren eraketan izan zuen papera ulertzea izan zen, baita ezker abertzalearen komunitate politikoan integrazteko boluntarismoaren/esentzialismoaren eztabaidagaien migrazioaren auzia sartzea ere. Migrazioaren gaia sakon aztertzen ez badu ere, Adrián Almeidaren (2020, 2022) lana ere garrantzitsua izan da komunitate politiko horren eraketa ulertzeko. Bestetik, ikerketa objektura hurbiltzean, Iraolaren kasuan garrantzitsua izan da hizkuntzaren auzia ikertzea, euskararen ikaskuntza kulturen integrazteko izan duen garrantzia erakutsiz.

Aipatzekoa da, halaber, azken urteotan Luis Castells Artechek (2018) koordinatutako bi liburu argitaratu direla. Hauetan migrazio-prozesua maila kuantitatiboan ikertzen da eta Bizkaiko eta Gipuzkoako migratzaileen integrazio prozesura eta gizarte-pertzepziara mugatzen dira. Horietan, fenomeno horren azterketa globalak dakarren konplexutasunaren irudikapen fidela aurki dezakegu. Hainbat ikuspegi metodologikoetatik abiatuta, ikuspegi kuantitatiboenetatik hasi eta bizi-istorioen azterketaraino, gaiari hurbiltzeak prozesu horren irudi osatuagoa sortzen laguntzen du.

2.2 Emozioak

Ikerketa honen oinarrian dagoen funtsezko ideia José Javier Diaz Freirek (2015c: 28) proposatzen duen "subjektu gabeko emozioa"-rena da. Benjaminek planteamendua jarraituz, Diaz Freirek ez ditu emozioak subjektuaren parte gisa ulertzen, baizik eta subjektua eta objektua elkartzen diren edo talka egiten duten leku gisa baino. Historialari honen proposamenen mundua eta gizakiaren arteko harremana ulertzeko lekualdaketa ematen da, aztergaia hizkuntzatik emoziora igaroz. Bere ikuspuntutik, lekualdaketa honen bitartez, arrazoiaren nagusitasuna bertan bera geratzen da, arrazionaltasun haragiztatuari mesede egiten.

Horren harrira eta subjektuen eraikuntzaren inguruan, oso paper garrantzitsua du Sarah Ahmedek garatu duen teoriak. Ahmedek emozioek subjektu eta objektuen arteko bitartekotza egiten dutela adierazten du, baita prozesu horretan bai bata zein bestea nola eraikitzen diren azaldu ere. Ahmeden arabera, ez ditugu emozioak "direnagatik" ulertu behar, baizik eta egiten duteagatik baino (Ahmed, 2017). Horrela ulertu dezakegu nola zirkulatzen diren gorputzen artean, horien azaletan nola itsasten eta mugitzen diren aztertuz. Lan honen ikuspuntutik, Ahmeden ekarpen nagusia hurrengoa da: emozioak ez dira sufritzen dituenaren ezaugarri esentzialak, ezta emozio horiek eragiten dituen indibiduoarenak ere. Bi horien artean harremana sortzen da eta esanahi berria egiten du.

Hortaz, emozioak subjektu eta objektuen artean igarotzen dira, "gauzak egiten", gizabanakoak interpelatzen eta subjektu berriak sortarazten. Ikerketa honetan, migratzaileek bizi izan zituzten esperientzietan sortu ziren emozioak aztertuko ditugu eta emozio horien bidez suertatu ziren prozesu sozialak ikertuz. Hau oso garrantzitsua izango da, "etorkina"-ren eta "bertakoa"-ren subjektu posizioak ez "esentzializatze"ko, alegia, euren esperientziak aldeztetik jakintzat edo agerikotzat ez emateko, ulertzeko, azken finean "gu" euskaldunak ez zuela, inongo kasutan, aldeztetik aurreko erreferente esentzialik izan. "Gu" hori desberdinen arteko elkartze baten ondorio izan zen

eta prozesu horretan diferente horien “mugak” irudikatu eta sortu ziren emozio desberdinen bidez: beldurgarriak eta beldurtuak, nazkagarriak eta nazkatuak, eta abar.

Ikerketa honetan hiru emozio ikertzeraz mugatuko gara: melankolia, lotsa eta ilusio utopikoa, etorkinaren subjektu eraketa ulertzeko asmoz eta emozioen historiaren alorretik migratzaileen ikasketetan zeruertzak zabaltzeko nahiarekin.

2.3 Kronologia eta memoria

60. hamarkadan Euskal Herrian emandako migrazio olatuaren ondorioz, ikerketa lan honen kronologia garai horretan hasia erabaki da. Gipuzkoan bizitako migrazio joera ohikotasunaren adierazle garbia da Zumarragako kasua, biztanleriaren erdia baino gehiago lurraldetik kanpo jaioa baitzen 1965ean. EAEri dagokionez, %40 eta %60 artean kokatzen da hiru probintzietako migrazio tasa 1951tik 1970era (Olabuénaga eta Blanco, 1994: 34).

Bestalde, landuko den kronologiaren bukaera 2000. urtean ezartzea erabaki da. Ikerketa honen ikuspuntutik 2000. urteak migrazioaren paradigmatikoa irudikatzen du, urte horren ostean migrante gehienek jatorria Europatik kanpoko delako. Aldaketa honek Euskal Herrian immigrantearen inguruan zegoen ikuspuntua eraldatu zuen, gizarteak ez zituelako espainiar estatuko migranteak edo Senegal bezalako tokietako migranteak modu berdinean ulertzen da.

Kronologia zabal honen justifikazioa memoriaren ikerketak markatzen duen ikuspuntuan bilatu behar da. Memoriarekin eta subjektibitateekin lan egiten dugunean (Passerini, 2006; Portelli, 2004), ez da erraza epe labur eta zehatzak ezartzea. Ahozko historiaren protagonistak elkarrizketatuak dira. Ahozko historialariek ez dugu iraganerako sarbide zuzenik, momentu historiko zehatzetara elkarrizketatuaren oraingo begiradatik heltzen garelarik. Horren ondorioz zaila da epeak moztea, izan ere bizitza-istorioek bizitza osoak jasotzen dituzte.

3. Ikerketaren muina

Aukeratu ditugun emozioak, helduek melankolia, elkartzearen lotsa eta etorkizunaren ilusio utopikoa dira. Emozio hauek etorkinen testigantza ezberdinetan agertzen dira, bai egileak egiten dituen elkarrizketetan baita beste ikerlariek egiten dituztenetan ere. Emozio horiek oso leku garrantzitsua izan dute elkarrizketatutakoaren memoria eraikitzearen orduan. Miren Llonak (2012: 19, 50-51) euren garrantzia emozionalarengatik identitate-korapiloak bihurtu daitezkeen oroitzapenak *memoria enklabeak* izendatu ditu. Hauek oinarritzakoak dira subjektuaren bizitza narrazioan. Ikerketaren hipotesia melankoliak, lotsak eta ilusio utopikoak *memorien enklabeak* sortzeko gaitasuna daukatela da.

3.1 Melankolia

Euskaltzaindiaren hiztegiaren arabera melankolia “Arima-egoera, goibeltasuna eta erabateko ezkortasuna ezaugarritzat dituen” da. Euskaltzaindiak ez bezala, artikulu honek planteatzen du ezkortasun hori ez dela arimaren edo subjektuaren ezaugarri bat. Aitzitik, ezkortasuna da, arrotasun gisa ulertua, subjektuaren eta objektuaren arteko harremanaren bitartekari izango dena, emozioa eta bien arteko mugak (subjektu posizioak eraikitzeak) ezarriko dituen.

Jasotako testigantzetan, nahiko ohikoa da Euskal Herriko klimak eragindako larritasunaz hitz egitea. Baina tristura ez dugu hizlariaren ezaugarri gisa interpretatzen, bere egoera psikologiko barne hutsa balitz bezala, baizik eta bera eta bere ingurunea harremanean jarri zituen emozio gisa, garaiko atmosferari espezifikoan gailendu zen emozio gisa:

Eta hona iristen garenean, zirimiria, zirimiria eta zirimiria. Etxe txiki batean egon ginen etxe bila joan ziren arte, eta egun horietan guztietan ohean egon nintzen, gaizki jarri nintzen. Nik orduan ez nekien zer zen depresioa, baina agian depresioa izan nuen. Grisa, grisa eta grisa zelako. Oso gaizki pasatu nuen. (G5, Aljarafe, Centro Cultural Andaluz de Errenteria, Izaola eta Zubero, 2018:92)

Malenkonía hori —nostalgia ez ote den ere eztabaidagarri litzatekeena— migratzaileen lehen egunetako tristura sakon hori, harridurazko esperientzia bat bezala ulertzen du ikerketa honek. Deleuzek eta Guattarik *desterritorializazioa* deitu diote esperientzia honi: subjektuek denboraren eta espazioaren esperientzian sufritzen duten esanahia haustura bat litzateke bizipen hau. Bere aldetik, Homi Bhabhak *unhomeliness* berba erabili du esperientzia hau izendatzeko. Honi dagokionez, zenbait egilek (Berry, 1992) *estres akulturatiboaz* hitz egin badute ere, lekukotasun horiek arroztea berez akulturazio-esperientziaren aurrekoa dela eta gorputzaren eta testuinguruaren arteko erlazioan sortzen duela erakusten dutela defendatzen da ikerketa honetan.

Zirimiri hura itogarria zen. Zeru urdin hura ikustetik hona etortzera, itogarria zen. (G2, Centro Cultural Extremeño de San Sebastián, Izaola eta Zubero 2018: 93)

Homi Bhabha edo Sarah Ahmed autoreek defendatu dutenez, jatorrizko herritarretan migratzaileengan pertzibitzen zuten malenkonía horrek gaitzespena sortzen zuen eta pertsona horien (“kanpoko”) arbuioa justifikatzeko balio izan zuen. Bertakoek oztopotzat hartzen zuten izaera malenkoniatsu hori, ez bakarrik euren zorionerako, baita hurrengo belaunaldiarentzat eta nazioarentzat ere. Migratzailearen nostalgia honek “kanpoko” pertsona denboran geldituta bizi balitz bezala hautematea dakar “hemengo”arentzat. Arrotza zaion testuinguru baten blokeatuta balego bezala pertzibitzen da. Nolanahi ere, subjektua ez da mugiezina; aitzitik, etengabe aldatzen da inguruneak eragiten dion neurrian eta nostalgiaz aparte beste hainbat emozioek eta esperientzia sozialek garrantzia izan zuten. Lehen aipatu den bezala, aukeratuta hiru emozioak etorkinen barne ibilbide bezala ulertu daitezke. Ibilbide hori jarraitzen, heltzearen nostalgia pasatuta, hurrengo geldialdia elkartzearen lotsa izango da.

3.2 Lotsa

Testigantzetan aurki dezakegun beste emozio bat lotsa da. Lotsaren sentipena eragiteko, irudimenezko lekuko bat egon behar da. Subjektuak lotsa sentitzen duenean, bakarrik badago ere, bere burua kanpoko lekuko horren aurrean jartzen duelako sentitzen du. Bestearen idealizazioa egon behar da, haren begiradak lotsaren subjektu-objektuari eragin diezaion. Hori ezin hobeto ikus daiteke Jon Maia bertsolariaren testigantzan, jatorri migratzailea zuen bere familiari buruz hitz egitean:

Adibidez, abizenekin. Nire lehen abizena Maia da, Jon Maia, eta Maia horrek nahiko kamuflatzen nau (...) euskarazko hitza zirudie[lako]. Baina bigarrena ezin nuen disimulatu, eta salatu egiten ninduela sentitzen nuen. Bigarrena Soria da, hirugarrena ez nuen inoiz esaten, Herrero da, eta laugarrena ez dut esan ia bizarra atera zitzaidan arte, Valderrama da. Valderramak V handi bat zuen letra larriz, eta horrek lotsa ematen zidan Valderrama abizena edukitzea. Hori ez nuen inoiz esaten. Eta horrek konplexu izugarriak ematen zizkidan. Badakizue zer zaletasun duen, edo zuen, hemen jende askok zortzi abizen euskaldunak esateko. Gainera, “pedigri” edo “euskolabel” pixka bat erakusteko. Ba... Iñaki Agirre Mendizabal Etxaniz Aizpurua Korta, ez dakit zer... Eta nik beti: Jon Maia, eta ez nuen inoiz hortik pasatu nahi, Maiaren/mahaiaren azpian ezkutatzen nintzen (Maia, 2013).

Maiaren kasuan, bere lotsaren lekukoa euskaldun idealaren eraikuntza da, abizen euskaldunen zerrenda luzea preskribitzen omen zuena eta horrek zekarren iruditeri nazionala. Idealizatutako figura da, subjektuak izan nahiko lukeena eta lortzen ez duena. Esentzializazioaren idealizazioa, alegia.

Lotsa aurkitzen dugu hirien kanpoaldean txabola-herrixketan hazi zirenen testigantzetan ere. “Aldeanismoa” delakoarekin pareka daitekeen lotsa, subjektua bere pobrezia-erengatik besteen egoera materialaren aurrean kokatzen duena eta besteengandik desberdintzen duena:

Lotsa ematen nuen. Asentamenduko beste haurrak eta biok Urazurrutiara joaten ginen eskolara [Udalako eskola, Urazurrutia kalean, Bilbon] eta bidean

etxe onak ikusten genituen. Benetako etxeak. Eta izeba bisitatzen nuenean, inguru hartan bizi baitzen, bere etxearekin txoratzen zen. Eta ni lotsatu egiten nintzen, ez nuen onartzen. (Campo, 2023:223)

Luis G. Martínez del Campok (2023) bere artikuluan azaltzen duen bezala, klase lotsak ez ziren soilik migratu zutenei eragin, baita auzo horietan pobrezia baldintza berdinetan bizi zirenei ere. Jose Luis Martín Vigilen esperientziak, zentzumenetan oso errotuta dagoenak, desberdintasun ukaezinaren lotsak, ahalkeak, gainezkatuta egoera ere transmititzen digu.

Haraino autoz iristeko lotsa (...) Urteak eta urteak eman ditut jakin gabe. Aldiriak, bai, banekien. Baina ez nuen usainik. Ez nuen ukitu (...) Begirada horien eragina ez nuen jasan. Begirada horiek, beste ehunka begirada zozo, lauso eta itzalien artean, gaitzespen inbertsonal, kosmiko eta erantzunik gabekoaz arima zulatzen dizutenak. (Campo, 2023:223)

Testigantzetan aurkitzen dugun lotsa ez da migranteena, ezta bertakoena ere, haien artean sortzen da, elkartzearen ondorioa da. Sarah Ahmedek psikologiaren kasu klasikoa baliatzen du hau azaltzeko: Basoan, ume bat eta hartz bat elkartzen dira. Bien artean, beldurra agertzen da. Beldurren ondorio bezala, umea beldurra sentitzen duen subjektua bihurtzen da. Aldi berean, hartzak beldurra eragin duen objektua bihurtzen da. Ez ziren beldurgarri eta beldurtuta elkartzea baino lehen, elkartzearen ondorioa denez.

Ikusi dugun bezala, lotsa oso emozio garrantzitsua izan zen migranteen subjektibitatearen eraikuntzan. Horren bidez, idealizazioak (etxe handi eta politena, abizen euskaldunen familiarena...) sortu eta indartu ziren, eta irudikapen hau betetzeko gai ez zinen lotsak besteengandik urrundu zituen askotan.

3.3 Utopia

Migranteen barne-ibilbide honen hirugarren eta azken geldialdia ilusio utopikoa da, hasiera batean nahasgarriena irudi daitekeena. Jatorri migratzailea duten pertsonak aparteko komunitate gisa ulertzeko joerak eta migratzaile gisa isolatuta eta gizarte-dinamiketatik kanpo irudikatzeak euskal gizarteak frankismo berantiarreko eta trantsizioko urteetan bizi izan zuen zapalkuntzatik ezabatzea eta euren ekarpena gutxiestea ekarri du. David Beorleguik trantsizioan ezker erradikaleko militanteek bizitako euforia eta desengainu esperientziak aztertutako dituzte. Bere aburuz, militanteen itxaropenei erantzun ez zuten errealitateak euren ilusio utopikoa zapuztu zuten. Frankismoaren amaiera ekarriko zuen aldaketa iraultzailearen utopia horrek migratzaileei ere eragin zien. Emozio hau bertako militanteekin topo egiteko abagune bilakatu zen, eta emozio partekatutako honen bidez subjektu komun bihurtzeko aukera eskaintzen zuten guneetara (protestetara, esaterako) mugiarazi zituen.

Jon Maiak berak harrotasun handiz hitz egiten zuen bere familiak garai hartako mobilizazioetan parte hartu izanaz, zehazki, Askatasunaren Martxan, eta orainera eramaten zuen garai hartan zerbait berria etortzearen zegoela sentitzen zuen ziurtasuna.

Gogoan dut behin aita manifestazio batetik etxera igo zela, korrika eta odolez, dena kolpatuta. Gogoan dut etxean ke-poteak eta gomazko pilotak izatea. Lehen Askatasunaren Martxan, hirurogeita hamarreko hamarkadan, oso txikia nintzela, ez dakit, 78., 79., 76., ... ez dakit. Baina errefuxiatuen itzulera bezalakoa zela eta herriz herri egin zen martxa hura, milaka lagun, eta nik neure burua gogoratzen dut martxa horretan, neure burua ere gogoratzen dut leihoan, Urretxun, lauzpabost urte izango nituen, Extremadurako amona leiho batetik begira eta Polizia Nazionaleko eskudroi bat herriko aldapan gora. Eta gero mitin batean, aitak mitin politikoak ematen zituen. Frontoi batean horrelako oroigarri bat daukat, alferria. Nik uste dut txikitatik ez dudala inoiz nire alde politikoa aukeratu, hau da, beraiek aukeratu zutela (Egileak egindako elkarrizketa 2023ko apirilaren 29an).

Beorlegik bere tesian jasotako jatorrizko pertsonen sentipen honek honela irudikatzen du mobilizazio huraxe:

Han izan ginen zuk hamar egun zenituenean, eta mundu berri baten atarian geundela pentsatzera iritsi nintzen (...) manifestazio hura [Askatasunaren Martxa], oroitzapen maitatuenetako bat da oraindik, zerrendako lehenengoetan dago. (Arantza Urretabizkaia, Beorleguin, 2017:102)

Ni ez nengoen gaizki, oso ondo nengoen. Hor nengoen iraultzarako bidea egiten... (hasperen egiten du). (Mariví Marañoñen testigantza Beorleguin, 2017:75)

Nire ustez, testigantza horiek lagungarriak izan daitezke bertakoen eta migratzaileen esperientzia identitarioen arteko desberdintasunak azpimarratzen dituzten azalpen paradigmak deseraikitzeke eta egiatan anitz bezain kolektiboa izan zen subjektu baten historia berreraikitzeke. Kategoria horiek atzean uzten dituen eta paradigma berriak bilatzera behartzen gaituen esperientzia bat da. Mobilizazio horietan kalera atera ziren pertsonak mundua aldatzeko ilusio partekatuak mugiarazi zituen. Beraz, kaleetan batzuk zein besteak, batera, okupatzera eraman zituen ilusio hori haien arteko mundua aldatzeko kohesio-faktore bat izan zela argudiatu daiteke.

4. Ondorioak

Hiru emozio horien azterketari esker, elkarren artean oso desberdinak diren hiru subjektibotasun ulertu ahal izan dira. Asmoa ez da arketipoak eraikitzea, emozio horiek ez baitzieten modu independentean eragin norbanakoei. Emozio horiek elkarrekin bizi, gainjarri eta elkarren ondoan jarri ziren, nortasun oso konplexuak eratuz, eta horiek taldeen aurkakotasunetik askoz haratago joan ziren: migratzailea/natiboa. Emozioen analisiak identitateak ez esentzializatzeko eta sakonago ulertzeko aukera ematen digu, azken finean.

Analisi hau eginda, emozioen eta ahozko historia migranteen esperientziak aztertzeke baliagarriak direla defendatu dezakegu. Migranteei buruzko lan ugari egon arren, metodologia hauek gaitasun analitikoa gehitzen dutela esan daiteke. Emozioen analisiak istorio-bizitzak ulertzen laguntzen digu. Iturriek soilik, analisisia egin baino lehen, ezin dutelako errealitatea azaldu hain zuzen ere.

5. Etorkizunerako planteatzen den norabidea

Hasierako ikerketa honen ondoren, etorkizunerako bide asko irekitzen dira: alde batetik, informatzaile kopurua handitzea bizitza-istorioen *corpus* zabal bat eraikitzeke. Elkarrizketak gidatutako ikerketa ororen helburua saturazio-puntura iristea da: une horretan ez du zentzurik elkarrizketa berriak egiten jarraitzeak, ez baitute informazio berri garrantzitsurik emango. Horrez gain, emozioen analisiarekin lotu daitezkeen aldagai asko daude: horien arteak generoa edo klasea garrantzitsuenak dira. Faktore horiek txertatzeak identitatearen naturalizazio ezan sakontzea ahalbidetuko du. Azkenik, fenomeno horren historizazioan bide luzea dago egiteko. Ikerketak aurrera egin ondoren, garrantzitsua izango da migratzaileen lehen, bigarren eta hirugarren belaunaldien arteko desberdintasunak identifikatzea. Etorkizuneko bilaketa horiek nire hurrengo 3 urteetan egingo dira, nire tesiaren garapenaren zehar.

6. Erreferentziak

- Ahmed, S. (1999). Home and away: Narratives of migration and estrangement. *International Journal of Cultural Studies*, 2(3), 329-347.
- Ahmed, S. (2017). *La política cultural de las emociones*. UNAM, Centro de Investigaciones y Estudios de Género.

- Aierdi Urraza, X. (1993). *La inmigración en el espacio social vasco: Tentativa de descodificación de un mundo social*. Universidad del País Vasco, Servicio Editorial = Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua.
- Almeida Díez, A. (2022). El pueblo trabajador vasco. Breve historia de la formación de un concepto y sus consecuencias estratégicas en ETA. *El Futuro del Pasado: revista electrónica de historia*, 13, 543-582.
- Arbaiza Vilallonga, M. (2018). “Sentir el cuerpo”: Subjetividad y política en la sociedad de masas en España (1890-1931). *Política y sociedad*, 55(1), 71-92.
- Beorlegui Zarranz, D. (2017). *Transición y melancolía: La experiencia del desencanto en el País Vasco (1976-1986)*. Postmetropolis.
- Berry, J. W. (1992) Acculturation and adaptation in a new society. *International Migration* 30, 69-85.
- Chacón Delgado, P. J. (2006). *La identidad maketa*. Hiria.
- Díaz Freire, J. J. (2001). El cuerpo de Aitor: Emoción y discurso en la creación de la comunidad nacional vasca. *Historia social*, 40, 79-96.
- Díaz Freire, J. J. (2007). Cuerpo a cuerpo con el giro lingüístico. *Arenal: Revista de historia de las mujeres*, 14(1), 5-29.
- Díaz Freire, J. J. (2015a). Emociones e historia. Presentación. *Ayer*, 98, 13-20.
- Díaz Freire, J. J. (2015b). La experiencia de la modernidad como una experiencia barroca. *Historia crítica*, 56, 137-160.
- Díaz Freire, J. J. (2015c). Miguel de Unamuno y Bilbao: La experiencia melancólica de la modernidad. *Ayer*, 98, 21-44.
- Escudero, M. (1978). *Euskadi: Dos comunidades*. L. Haranburu.
- Fernández Soldevilla, G., & López Romo, R. (2010). ¿Enemigos internos o nuevos aliados?: Los inmigrantes y el nacionalismo vasco radical (1959-1979). *Alcores: revista de historia contemporánea*, 10, 193-217.
- Iraola Arretxe, I. (2013). *Euskal nazionalismoaren diskurtsoa gaur egungo immigrazioaren aurrean*. Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen Argitalpen Zerbitzua. <https://doi.org/10.12457>
- Iraola Arretxe, I., & Odriozola Irizar, O. (2017). Lengua e inmigración en la definición de la nación: El caso vasco. *Spagna contemporanea*, 51, 35-56.
- Iraola Arretxe, I., Mateos González, T., & Zabalo Bilbao, J. (2011). Discursos sobre la integración: La inmigración al País Vasco en los años 1950-1970. *RIPS: Revista de investigaciones políticas y sociológicas*, 10(3), 115-130.
- Izaola, A eta Zubero, I. (2018). *Las migraciones internas y su aportación al desarrollo de Gipuzkoa (1950-1975). Sistematización y actualización* in Castells Arteché, L. (koord.), *Barne-migrazioak eta horiek Gipuzkoari egin zioten ekarpena (1950-1975) : Gipuzkoa, immigrazioa eta integrazioa*, Ramon Rubian Fundazioa, 15-147.
- Llona, Miren. (2012). *Entreverse: Teoría y metodología práctica de las fuentes orales*. Servicio de Publicaciones. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/libro?codigo=515497>
- López Romo, R., & Fernández Soldevilla, G. (2016). La frontera de la identidad. El nacionalismo vasco radical y la figura del «otro». *Grand place: pensamiento y cultura*, 6, 37-52.
- Martínez del Campo, L. G. (2023). Ciudadanos melancólicos. Narrativas emocionales sobre la inmigración en el Bilbao franquista. *Investigaciones Históricas. Época Moderna y Contemporánea*, 43, Article 43. <https://doi.org/10.24197/ihemc.43.2023.209-235>
- Migratzioetik bertsolaritzara-Jon Maia (Hitzaldia Aniztasunaldia). Iturria Youtube, 2013.
- de Miguel, A. (1974). Estructura social e inmigración en el país VascoNavarro. *Papers: revista de sociologia*, 3, 249-273. <https://doi.org/10.5565/rev/papers/v3n0.883>
- Passerini, L. (2006). *Memoria y utopía: La primacía de la intersubjetividad*. Servicio de Publicaciones = Servei de Publicacions.
- Portelli, A. (2004). El uso de la entrevista en la historia oral. *Anuario de la Escuela de Historia*, 20, 3.
- Ruiz Olabuénaga, J. I., & Blanco, M. C. (with Universidad de Deusto). (1994). *La inmigración vasca: Análisis trigeracional de 150 años de inmigración*. Universidad de Deusto.

7. Eskerrak eta oharrak

Artikulu hau nire Historia Garaikideko Master Amaierako Lanaren ikerketa zati bat da. Bere titulua zen “Identidades en tensión: La conformación de identidades híbridas en la población de origen migrante en el País Vasco del último cuarto del siglo XX. El estudio de caso de Jon Maia” eta Miren Llonaren tutoretzapean amaitu eta defendatu nuen 2024ko uztailean.

Doktore tesian gai honetan barrentzea asmoa dut, Bakarne Altonaga eta Miren Llonaren zuzendaritzapean, UPV/EHUko Experiencia Moderna ikerketa taldean. Hau posible izango da 2024ko UPV/EHUn ikertzaileak prestatzeko kontratazio deialdia finantzazioari esker.

Esker mila nire zuzendariari eta migrantei euskara irakasten diguten guztiei.